# TOKIKO ZUZENBIDEAREN EUSKAL MINTEGIA

## 2016 (X. EDIZIOA)

2016KO MARTXOTIK AZARORA

HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

# TOKIKO ZUZENBIDEAREN EUSKAL MINTEGIA 2016 (X. EDIZIOA)

**2016KO MARTXOTIK AZARORA**

## SARRERA

Tokiko Zuzenbidearen Euskal Mintegiaren X. edizioa izango da. EUDEL eta IVAPen arteko prestakuntza diseinatuaren aurtengo eskaintzaren barruko programa finkatuetako bat da.

Edizio hau 5 saiotan dago egituratuta, hurrengo gaiak barne hartuta: enplegua eta funtzio publikoa, tokiko zerbitzu publikoen kudeaketa partekatua, kontratatzeko zuzentarau berriak, zehatzeko ahala eta herritarren parte-hartzearen arau esparrua.

Prestakuntza programa hau 2006az geroztik egiten da, eta helburua Euskadiko toki erakundeetako arlo juridikoko langileek beharrezkoak dituzten tresnak eskura izatea da, euren funtzioak kalitate profesional onenarekin gara ditzaten.

Mintegia gai bakarreko hainbat saiotan dago egituratuta, besteak beste:

- **Hitzaldi akademikoak,** aditu eta profesionalen eskutik, Tokiko Zuzenbide Publikorako funtsezkoak diren gaiei buruzkoak.
- Hitzaldi akademikoaren osagarriak diren gaiei buruzko **gogoetarako espazioa** eta tokiko gobernuei buruzko praktika onak.
- **"Tokiko Zuzenbidearen Behatokia":** arauen, jurisprudentziaren, dokumentuen eta bibliografiaren gaineko berrikuntzak aztertzeko espazioa.
  - **Aldizkari Digitala barne dago:** jurisprudentziari buruzko albisteak, arau-aipamenak eta intereseko bibliografia.

## 2016ko PROGRAMA
## TOKIKO ZUZENBIDEAREN EUSKAL MINTEGIA

| | |
|---|---|
| **Bost saio (20 ordu):** | martxoaren 18an, maiatzaren 6an, ekainaren 17an, irailaren 30ean eta azaroaren 18an |
| **Ordutegia:** | 09:30-13:30 |
| **Tokia:** | Bizkaiko Artxibo Forala (María Diaz Haroko kalea, 11) |
| **Matrikula:** | 200 euro |
| **Izena on-line** | eman daiteke **martxoaren 4a** baino lehen, esteka honetan: **http://www.eudel.eus/svdl/izenematea2016** |
| **Informazio gehiago hemen:** | **www.eudel.eus / www.ivap.eus** |
| **Antolatzailea:** | EUDEL eta IVAP |

# 2016ko PROGRAMA - Tokiko Zuzenbidearen Euskal Mintegia

## LEHENENGO SAIOA: Martxoaren 18a

**09:30-11:00** Hitzaldia:

***Jurisprudentzia-ildo berriak tokiko enplegu publikoaren arloan*** Alberto Palomar Olmeda. Administrazio Zuzenbideko irakasle titularra (akred.). Administrazioarekiko auzien magistratua. Gizarte Segurantzako Administrazioaren letradua

**11:00-11:30** Etenaldia-kafea

**11:30-12:15** Hitzaldiarekin lotutako gai osagarriak

***Eusko Jaurlaritzaren Enplegu Plana: nola egin aurre jakintzaren galerari arlo publikoan. Aplikatzea tokiko administrazioetan***
Mikel Gorriti Bontigi. Eusko Jaurlaritzako Funtzio Publikoaren arduraduna

**12:15-13:30** *Tokiko Zuzenbidearen Euskal Behatokia*

## BIGARREN SAIOA: Maiatzaren 6a

**09:30-11:00** Hitzaldia:

***Tokiko zerbitzu publikoen kudeaketa partekatua: mankomunitateak, partzuergoak eta hitzarmenak. Lankidetza probintziala zerbitzuen kudeaketan***
Francisco Cacharro Gosende. Ourenseko Aldundiaren idazkari nagusia

**11:00-11:30** Etenaldia-kafea

**11:30-12:15** Hitzaldiarekin lotutako gai osagarriak

***Nafarroako Foru Komunitatearen udalaz gaindiko erakundeak***
Nafarroako Udal Federazioa

**12:15-13:30** *Tokiko Zuzenbidearen Euskal Behatokia*

## HIRUGARREN SAIOA: Ekainaren 17a

**09:30-11:00** Hitzaldia:

***Kontratazioko zuzentarau berriak: zer egin Estatuaren gelditasunaren aurrean, haren transposizioan.***
Javier Vazquez Matilla. Europako Batzordearen kontratazio publikoan aditu-taldearen kidea. Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiko kidea. Nafarroa

**11:00-11:30** Etenaldia-kafea

**11:30-12:15** Hitzaldiarekin lotutako gai osagarriak

***Euskal Herriko Kontratazio Publiko Elektronikoa eskura***
Angel Cancelo Calvo. Kontratazio Elektronikoaren Arduraduna. Eusko Jaurlaritza

**12:15-13:30** *Tokiko Zuzenbidearen Euskal Behatokia*

## LAUGARREN SAIOA: Irailaren 30a

**09:30-11:00** Hitzaldia:

***Tokiko zehatze-ahalaren esparru juridiko berria 39/2015 eta 40/2015 Legeen aldaketak izan eta gero***
Silvia Diez Sastre. Madrilgo Unibertsitate Autonomoaren Tokiko Zuzenbidearen Institutuko Administrazio- eta Ikerkuntza-justiziari buruzko Ikerketa Zentroko zuzendaria.

**11:00-11:30** Etenaldia-kafea

**11:30-12:15** Hitzaldiarekin lotutako gai osagarriak

***Jurisprudentzia garrantzitsua toki-erakundeen zehatzeko eremuan*** José Ramón Chaves García. Galiziako Justizia Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzietako magistratu espezialista

**12:15-13:30** *Tokiko Zuzenbidearen Euskal Behatokia*

## BOSGARREN SAIOA: Azaroaren 18a

**09:30-11:00** Hitzaldia:

***Herritarren parte-hartzearen arau esparrua toki-erakundeetan eta hura garatzeko aukerak tokiko ordenantzen bidez***
Manuel Zafra Víctor. Granadako Unibertsitateko Zientzia politikoetako irakaslea.

**11:00-11:30** Etenaldia-kafea

**11:30-12:15** Hitzaldiarekin lotutako gai osagarriak

***Herritarren parte-hartzearen politikaren garapena Vitoria-Gasteizko Udalean***
José Luis Pérez Gómez (Kotelo). Vitoria-Gasteizko Udalaren Parte hartzearen, Gardentasunaren eta Gizarte-etxeen zuzendaria

**12:15-13:30** *Tokiko Zuzenbidearen Euskal Behatokia*

# ZIURTAGIRIA

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) bertaratze-ziurtagiria emango die Mintegiaren 5 saioetatik, gutxienez, 4 saiotara joaten direnei.

IVAPek ez ditu inolaz ere bertaratze bakanak ziurtatuko. Saioren batera joaterik izan ezean, EUDELi jakinaraziko zaio. Toki-erakundeko beste pertsona bati bertaratzeko aukera lagatzea ezarri da, haren datuak adierazita.

EUDELek eta IVAPek programa aldatzeko eta prestakuntza-saioa ez egiteko eskubidea dute, izen-emate nahikorik egon ezean. Halakorik gertatuz gero, lehenbailehen jakinaraziko zaie interesdunei.

# IZEN-EMATEAK
# ETA HARPIDETZAK

Gehienez ere, 70 plaza daude.
Izen-ematearen hurrenkera errespetatuko da.

Izen-emateak IVAPen bidez izapidetzea.

Izena emateko epea martxoaren 4an bukatuko da.
**Izena on-line eman daiteke martxoaren 4a baino lehen, esteka honetan:**
**http://www.eudel.eus/svdl/izenematea2016**

Informazio gehiago hemen:
**www.eudel.eus / www.ivap.eus**

**Antolatzailea:**
EUDEL eta IVAP

## MATRIKULAREN ORDAINKETA

Bost saioak daude 200 euroko prezioaren barruan. Matrikula EUDELi ordainduko zaio IVAPek hura konfirmatu ondoren, eta banku-transferentzia bidez egingo da. Hona hemen kontu zenbakia:

**ES14 2095.0611.09.3230003199**